

# OTSAILAREN 13AN TORTURAREN AURKAKO EGUNA

1981. urtea zen Joxe Arregi Zizurkilgo herritarra atxilotu eta 9 egunez basatiki torturatu izan zenean. Komisaldegiko infernua atzean utzi zuen 9 egun inkomunikaturik igaro eta gero, baina Carabanchel espetxeko ospitalean sartu behar izan zuten benetan egoera tamalgarrian. Bere gorputza ubelduraz eta erreduraz josita zegoen, eta gutxi iraun zuen bizirik. Otsailak 13 hartako bere hitzek ongi adierazten dute Joxe Arregik pairatu behar izan zuena. Oso latza izan da esan eta heriotzaren marra igaro zuen.

Azken 40 urteotan 7000 euskal herritar baino gehiago izan dira basakeria hau sufritu dutenak. Euskal Herritarren aurkako errepresio eroan tortura egunero erabili baitute unean-uneko gobernu ezberdinek.

Independentziaren aldeko borrokarekin amaitzeko tresna politiko bezala erabiltzen du tortura espainiar gobernuak, informazioa politikoa eskuratu, atxilotuen autoinkulpazioak lortu eta euskal herritarren artean benetako beldurra zabaltzeko helburuarekin.

Tortura sistematikoa dela esaten dugu, eta atzean utzi dugun urtea da esaten dugunaren adibide argia. 2008. urtean 62 euskal herritar torturatu dituzte guardia zibilek eta espainiar polizia, hauetako 6 ospitalizatuak izan direlarik. Igor Porturen ospitalizazioarekin hasi zen 2008a eta Harkaitz Landaberearen ospitalizazioarekin amaitu da. Tartean beste 60 euskal herritarrek pairatu dute torturaren infernua. EAEn hauteskunde giroa nagusitu den honetan gogoratu behar dugu nork zer egiten duen torturaren gorpilean. Argi adierazi nahi du Zapatero, Rubalcaba eta Patxi Lopez direla torturaren arduradun politikoak, eta argi adierazi nahi dugu Ibarretxe, Ziarreta eta Madrazo itsu, mutu eta gor egon direla tortura kasu hauen guztien aurrean.

Gure aldetik, data hauetan gogoan izan nahi ditugu Euskal Herrian torturatuak izan diren herritarrak, bereziki torturak hil dituenak. 2009. urteko otsailaren 13an oraindik orain torturaren errealitatearekin aurrez aurre aurkitzen gara, atxilotuen inkomunikazioak horretarako inpunitate guztia eskaintzen dielako torturatzailerei. Ondorioz, torturaren aurkako borroka ez da amaitu.

Euskal Herriko Amnistiaren Aldeko Mugimendutik dei egiten dugu Otsailaren 13an Euskal Herrian torturaren aurka burutuko diren ekimenetan parte hartzera.



# OTSAILAREN 13AN TORTURAREN AURKAKO EGUNA

Era el año 1981 cuando el zizurkildarra Joxe Arregi, fue detenido y torturado brutalmente durante 9 días. Tras dejar atrás el infierno de la incomunicación fue ingresado en la prisión de Carabanchel, en un estado lamentable. Su cuerpo estaba lleno de moratones y quemaduras, y pudo sobrevivir durante poco tiempo. Las palabras que pronunció aquel 13 de febrero, antes de morir, expresan bien lo que tuvo que sufrir: Oso latza izan da (Ha sido muy duro).

En los últimos 40 años más de 7000 ciudadanos y ciudadanas vascas han sufrido la misma brutalidad. Los sucesivos gobiernos han empleado la tortura en la enloquecida represión contra Euskal Herria.

El gobierno español utiliza la tortura como herramienta política en su lucha contra la independencia de Euskal Herria. Para conseguir información política, conseguir autoinculpaciones de los y las detenidas y extender el miedo entre la ciudadanía de Euskal Herria.

La tortura es sistemática, y el año que dejamos atrás es un claro ejemplo de ello. Durante el 2008 62 personas han sido detenidas por la Guardia Civil y la Policía Española, y 6 de estas han tenido que ser hospitalizadas. El año comenzó con la hospitalización de Igor Portu, y ha acabado con la de Arkaitz Landaberea. Mientras, 60 personas más han sufrido el infierno de la tortura.

En estos días en que el ambiente electoral está muy presente en la CAV, queremos recordar lo que aporta cada agente político a la espiral de la tortura. Queremos decir bien claro que Zapatero, Rubalcaba y Patxi Lopez son los responsables políticos de la tortura. También queremos decir bien claro que Ibarretxe, Ziarreta y Madrazo permanecen ciegos, mudos y sordos ante todos estos casos de tortura.

Por nuestro lado, en estas fechas, queremos recordar a los y las ciudadanas de Euskal Herria que han sido torturadas, en especial las personas que han muerto a consecuencia de las torturas. El 13 de Febrero de 2009 nos encontramos todavía cara a cara con la realidad de la tortura, por que la incomunicación de los y las detenidas ofrece a los torturadores la impunidad para ello. Por lo tanto, la lucha contra la tortura no ha terminado.

El Movimiento Pro Amnistía de Euskal Herria, llama a participar en las iniciativas que se celebrarán contra de la tortura, el día 13 de Febrero en Euskal Herria.

